



...they won't mention our
se. "We want to name, but their Web site will
our line of spe- have a link to our Web site,"
Cindy said. ...vice said. The show is
all new products ...gled to air either this
them... at fo... February, he said.

3 tablespoons of
good-quality olive o
1 tablesp...ed win
vin

Arduraz jokatzeko
Ingurumenerako Heziketa

haur hezkuntza

Jarduera egitaraua 2007/2008

Iruñerriko Mankomunitatea

Paper birziklatuta




Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Ingurumen Heziketarako Programa

Helbidea: Imaz anaiak, 1
Ordutegia: 08:00etatik 14:30era.
Kontsultak: 948 423 194 / 948 423 285
E-posta: jalzueta@mcp.es / mvital@mcp.es
Faxa: 948 423 220

www.mcp.es



Iruñerriko
Mankomunitatearen egoitza
Helbidea: Chinchilla jenerala, 7
31002 Iruña

Zer helburu du?

Hezkuntza komunitateak ingurumena-ri buruzko kontzientzia eta horren inguruko interesa hartzea, baita egun dauden arazoetarako konponbideak bilatzeko zein etorkizunean agertu daitezkeenak saihesteko beharrezko ezagutzak, jarrerak, jokabideak, motibazioa eta nahia banaka zein taldeka eskuratzea ere.

(Ingurumen heziketaren xedea, Belgradeko gutuna 1975).

Ingurumen esperientzia eta programak egin daitezela sustatzea, Iruñerri-ko ingurunean ezagutza eta analisi kritikoa eta sormenezkoa helburu izanen dutenak.

Baliabide materialak eta aholkularitza tekniko eta didaktikoa erraztea, irakasleek zein ikasleek aipatu programak gauzatu eta euren informazio premiak bete ditzaten.

Zer eduki lantzen dira?

Uraren ziklo integrala.

Hornidura eta Saneamendua

Kontsumoa eta Hondakinak.

Birziklatzea eta Berreskuratzea.

Garraioa eta Mugikortasun iraunkorra.

Iruñerriko Ibai Parkea.

Ingurumen heziketa.

Naturako eta hiriko ingurumena.

Zer zerbitzu eskaintzen ditu

- DOKUMENTAZIO ZENTROA: kontsulta eta mailegua.
- AHOHKULARITZA TEKNIKO ETA DIDAKTIKOA: irakasleak eta ikasleak.
- MATERIAL DIDAKTIKOEN DISEINU, KOORDINAZIO ETA EDIZIOA
- SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK ESKOLA ESPARRUAN
- IKASTETXEAN HONDAKINAK KUDEATZEKO BALIABIDEAK: ikasgeletan papera birziklatu eta berrerabiltzeko paperontziak eta erretiluak banatzea, papera eta pilak biltzeko edukiontzia, biltzea sailkatuaren eranskailuak, materia organikoaren konpost-ontzia, eta abar.

Jarduera programa

Mankomunitateak kudeatutako instalazio eta espazioak bisitatzea. Ibilbide gidatuak, instalazioak ongi ezagutzeko helburu zehatza dutenak: burutzen diren prozesuak, funtzionamendua eta kudeaketa, ingurumenaren aldeko jarrera eta jokabideei buruzko hausnarketa zabaltzen duten jarduera osagarriekin batera.

Tailerrak. Lan proposamen dinamiko eta partehartzaileak, programa bakoitzeko eduki nagusiei buruzkoak, norberaren ardura eta erantzukizuna azpimarratuz zein ingurumenaren aldeko jokabideak sortuz.

Jardunaldiak Goizeko saioak, instalazio batera edo ibai parkera egindako bisitatik garatzen direnak; helburua eduki zehatze-tan sakontzea da, sentsibilizazioa azpimarratuz eta jokabideak eta ohiturak sortuz.

Partehartze emaitzak 2006-2007 Iruñerriko ikastetxeak

	Haur Hezkuntza		Lehen Hezkuntza		Bigarren Hezkuntza		GUZTIRA	
	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak	Ikastetxeak	Ikasleak
Ura	42	2.620	55	6.654	36	3.646	99	12.920
Hondakinak	-	-	37	2447	25	1.416	62	3.863
Garraioa	-	-	7	644	8	904	15	1.548
Ibai Parkea	20	1.233	31	2.241	17	572	54	4.046
Guztira	47	3.853	64	11.986	43	6.538	111	22.377

konposta eskolan

Konposta eskolan esperientziak iaz izandako erantzun ona ikusita (Iruñerriko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 12 ikastetxek parte hartu zuten), interesa duten eta eskola baratza edo berdegunea duten ikastetxe guztiei luzatzen zaie aukera aurretan.

Berrikuntza gisa, bigarren hiru hilekoan zehar, Konposta eskolan esperientzia gauzatu duten ikastetxeek KONPOSTAREN ASTEA: "Materia organikoaren zikloa itxiz" delakoan parte hartu ahaliko dute. Ikastetxez ikastetxe joango den erakusketa ibiltaria da, eta erakusketarako bisita didaktiko gidatuak eta mimo bidezko antzezpena bilduko ditu.

Konpost-ontzia jasotzeko edo Konpostaren Astean parte hartzeko eskaera telefonoz egin behar da, eta ikastetxe osorako egingo da eskaera. Informazio bilera egin da partehartzaileekin ikasturtearen hasieran.



ESKOLA KONPOSTAREN ASTEA:
"Materia organikoaren zikloa itxiz"
(2. hiru hilekoan)

Eskaera telefonoz egin behar da,
urria baino lehen, eta ikastetxe osorako da.

KONPOST-ONTZIA ESKATZEA

Baldintzak

- Konposta eskolan parte hartzeko edo parte hartzen jarraitzeko konpromisoa.
- Gutxienez proiektuaren dinamizatzaile bat egotea ikastetxean.
- Eskola baratza eta/edo berdegune zabala zein eskola jantokia egotea.

Baliabideak

- Informazio bilera Mendillorri, partehartzaile guztiekin batera.
- Konpost-ontzia (800 ml) jasoko da, eragiteko kiribila barne, eta honelako kita:
 - Hondakin organikoak biltzeko ontzia, konpost-zakua eta termometroa.
 - Biringailu elektrikoa (maileguan).
 - Bahe bat eta zakutxo batzuk ere jasoko dira, konposta prest dagoenen haietan sartzeko.
- Jarraipena egiteko bisita teknikoa eta telefono bidezko harrera.

KONPOSTAREN ASTEA

"Materia organikoaren zikloa itxiz"

Konposta egiteko esperientziaren gaineko jarduerak ikastetxean bertan.

Baliabideak

- Erakusketa ibiltaria ikastetxean: "Konposta egitea etxean eta eskolan"
- Bisita didaktiko gidatuak erakusketara
- Mimo bidezko antzezpena (Kollins Clown)

Baldintzak

Konposta eskolan esperientzian parte hartzea

Noiz Bigarren hiru hilekoan

Informazio zehatzagoa
Mankomunitateko Heziketa
Programan.

	Norentzat	Gehienezko ikasle kopurua
Erakusketa ibiltaria (aste bat ikastetxean)	Eskola komunitate osoa	Bisita libre edo gidatua
Bisita didaktiko gidatuak erakusketara (55')	H.H. 3. ziklotik aurrera (edo esperientzia gehien nahastutakoak)	Gela 1 bisita bakoitzeko 8 pase ikastetxe bakoitzeko
Mimo bidezko antzezpena (25')	H H 2. ziklotik aurrera. (edo esperientzia gehien nahastutakoak)	Aretoaren arabera Saio 1 edo 2 ikastetxe bakoitzeko

“Paper biltzeta selektiboa ikastetxeetan” programa

Programa berriak eskola esparruan papera biltzeko kudeaketarako beharrezko **baliabide materialak** jartzen ditu ikastetxeen eskura, baita ezarpen eta garapen prozesuan zehar beharrezkoa den aholkularitza tekniko ere.

Baliabideak

2007ko lehen eta bigarren hiruhilekoetan Iruñerriko 18 ikastetxetan izandako esperientzia pilotuari esker, proposamena prestatu eta baliabide materialak aukeratu ahal izan ditugu: papera eramateko edukiontzia edo ontzi gurpildunak, zaku berrerabilgarriak, erretiluak, pape-rontziak, horma-irudiak,...; horiek guztiak egokienak suertatu dira.

Halaber, ondoko argitalpena dute eskura ikastetxeek, hondakinak murrizteko eta papera biltzeko orduan ikasleen partehartze aktiboa sustatze aldera: **“Jardunbide egokien gida: papera ikastetxean”**.

Baliabide horiez gain, paper edukiontzia irekitzeko sistema aldatu da programan parte hartzen duten ikastetxeetatik hurbilen dauden edukiontzietan; horri esker, pertsona bakar batek bota dezake bildutako papera.

Nola parte hartu programa

Programan parte hartu ahal izateko, ikastetxeek **Parte Hartzeko Konpromiso Orria** bete eta bidali beharko dute (urte oro egin behar da), **Paper Baliabideak Eskatzeko Fitxarekin** batera (urte oro egin behar da); azken fitxa hori buletin honi erantsitako foiletoarekin batera bidali zaio ikastetxe bakoitzeko zuzendaritza taldeari. Joan den ikasturtearen amaieran konpromisoa berretsi zuten ikastetxeek ez dute eskaera berriro izapidetu behar, dena den.

Mendillorriko ur-biltegi-tako pasealekua

Mendillorriko ur-biltegi-tako pasealekua gunee berdea da, segurua, hiritar guztiei zabalik, guztiok erabiltzeko modukoa.

Kilometro bateko luzera du, eta ondokoa dago bertan: hiru behatoki panoramiko (Iruñerriaren bista ederrak eskaintzen dituzte), identifikatutako espezie botaniko ugari, atse-den gunea (haurrendako jolastokia du) eta abar.

“Ura” programa Mendillorri egiten dutenek baliabide osagarri hori gozatu ahalko dute.



1. eta 2. IRUÑERRIKO IBAI PARKEA PROGRAMA

bisita

“PARKEA ZENTZUMENEN BIDEZ”

Norentzat: 1.a eta 2.a

Tokia:

- Donapeako jolas eremua, Atarrabian.
- Barañaingo jolas eremua.

Noiz: Hirugarren hiruhilekoa.

Noiz: Astelehenetik ostiralera.

Ordutegia:

- Goizez: 09:45etik 11:45era
- Arratsalde: zehazteke

Iraupena, gutxi gorabehera: 2 h.

Partehartzaile gehienezko kop.: 2 talde/ikasgela bisita bakoitzeko.

Helburuak:

Iruñerriko Ibai Parkea bisitatzea.
Naturarengan errespetuz hurbiltzea.

Edukiak:

- Ibaia eta bere ingurunea.
- Paisaiaren natur eta giza elementuak antzematea.
- Informazioa jasotzea zentzumeneren bidez.

Jarduerak:

- Ingurunea behatu eta aurkitzeko paseo laburra.
- Sentsibilizazio jolasak: *“Soinuak eta zaratak”, “Ikusi-makusi. Zer ikusi? Koloreak”, “Gaua osasunen bila, opari bar Andrés ahatearentzat”.*
- Denbora librea hamaiketako jateko eta haur parkea.



bisita

MENDILLORRIKO UR-BILTEGIAK + “Nondik dator edaten dugun ura?” JARDUERA

Norentzat: 2.a eta 3.a

Tokia: Mendillorriko ur-biltegiak

Noiz: Iraila, urria eta martxotik aurrera.

Noiz: Astelehenetik ostiralera.

Ordutegia: Saioak 09:30 eta 11:15ean.

Partehartzaile gehienezko kop.:

2 talde/ikasgela bisita bakoitzeko.

Iraupena, gutxi gorabehera: 1:30 h.

Helburuak:

- Tokian dauden baliabideak aprobetxatzea uraren garrantzia eta ura zaintzeko beharra baloratzeko.
- Urak egiten duen bidea ezagutzea, hartzen denetik kontsumitzen den arte, eta behar bezala erabiltzen ikastea.

Edukiak:

- Ingurunea ezagutzea.
- Ura edateko on bilakatzea.
- Urak txorrotaraino egiten duen bidea.
- Kontsumo ohitura eta erabilera arduratsuak.

Jarduerak:

- Bisita eta entzunaldia ur-biltegi zaharretan.
- Bideoa: “Ura zure laguna da”.
- “Nondik dator edaten dugun ura?” jarduera.
- Denbora libre hamaiketako jateko, haur parkea eta ur-biltegiaren pasealekua.

Parte hartzeko betebeharrak:

Aldez aurreko prestaketa.



Laguntzeko Unitate Didaktikoa

“BARRILLO ETA URA”

(Haur Hezkuntzako 1.a, 2.a eta 3.a)

Unitate didaktikoak ondokoa biltzen du:

- Ikaslearen koaderno
- Irakaslearen gidaliburua.
- Uraren soinuak biltzen dituen CDa.
- Horma-irudiak eta musika lanak.
- Margolan artistikoak.

Ikaslearen koaderno eskatzeko:

Bisita ikasgelan prestatzeko ikasle bakoitzarentzako materiala eskatzeko, zehaztu zenbat koaderno behar diren eskaera fitxan.



Ingurumen Heziketarako Programako jardueren laburpena

Haur Hezkuntza

		1.	2.	3.
IBAI PARKEA	Bisita: Atarrabiako eta Barañaingo jolas eremuak <i>"Parkea zentzumenen bidez"</i>	•	•	
URA	Bisita: Mendillorriko ur-biltegiak + <i>"Nondik dator edaten dugun ura?"</i> jarduera		•	•
HONDAKINAK	Konposta egitea eskolan: Ikastetxean sortutako hondakin organikoak birziklatzeko konpost-ontzia Konpostaren astea: "Materia organikoaren zikloa itxiz" (2. hiruilekoa)	Eskaera telefonoz egin behar da, urria baino lehen, eta ikastetxe osorako da.		

Lehen Hezkuntza

		1.	2.	3.	4.	5.	6.
IBAI PARKEA	Jardunaldia: <i>"Ezagutu parkearen bizia"</i> Atarrabiako jolas eremua (S. Andres errotaren uhartea) edo Barañaingoa Jardunaldia: <i>"Ibaiak paisaia eraldatzen du"</i> La Nogalera jolas eremua, Burlatan Jardunaldia: <i>"Ibai bat, mila erabilera"</i> . Ezagutu Atarrabiako pilategia eta bere ingurua	•	•				
URA	Jardunaldia: <i>Zer egiten dut ura zaintzeko?</i> (Mendillorriko ur-biltegiak) Jardunaldia: <i>"Zikloa naturan eta lur azpiko urak"</i> (Artetako iturburua) Jardunaldia: <i>"Uraren hiriko zikloa"</i> (Eugi + Urtasun + Mendillorriko programa) Bisita: Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia Bisita: Eugiko urtegia + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak Bisita: Artetako iturburua + Interpretazio zentroa + Egillorko edateko uren araztegia Bisita: Artetako iturburua + <i>"Lur azpiko urak"</i> Interpretazio Zentroa Bisita: Arazuriko araztegia + <i>"Nik ez dut ura kutsatzen"</i> jarduera	•	•				
HONDAKINAK	Bisita: Gongorako H.H.T.Z. + Kontsumo arduratsuko jarduera Bisita: Gongorako H.H.T.Z. + Kontsumo arduratsuko jarduera + Garbigunea Tailerra ikasgelan: <i>"Nik kontsumitzen dut eta 3 R delakoak betetzen ditut"</i> Tailerra ikasgelan: <i>"Nola egin paper birziklatua"</i> Tailerra: Zuhaitzak landatzea Ezkaba mendian eta papera berreskuratzea Konposta egitea eskolan: Ikastetxean sortutako hondakin organikoak birziklatzeko konpost-ontzia Konpostaren astea: "Materia organikoaren zikloa itxiz" (2. hiruilekoa)				•	•	•
GARRAIOA	Tailerra ikasgelan: <i>"Banator eta banoa"</i> Autobusaren magia: <i>"Bidaiatu Eskualdeko Hiri Garraioan"</i>					•	•

Eskaera telefonoz egin behar da, urria baino lehen, eta ikastetxe osorako da.